



BADALAB HIZKUNTZA BERRIKUNTZAKO PARTZUERGOA

Bekak ematea, gizarte digitalari dagokion lan ildoaren baitan, "Adimen Artifiziala Auzitan. Ideia sustapen deialdia" 2023ko deialdiari dagozkionak.

Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren Batzorde Betearazleak, 2023ko urriaren 4an eginiko bileran, ondoko erabakia hartu du:

2023ko uztailaren 21eko Gobernu Batzordeak hartutako erabaki bidez onartu ziren "Adimen Artifiziala auzitan. Ideia sustapen deialdia" bekak emateko oinarri arautzaileak eta 2023ko deialdia. Halaber, 6.000 euroko gastua baimendu zen deialdi horretarako, 1 480.02.04 2023 aurrekontu sailaren kargura. Erabaki horren xehetasun guztiak irailaren 12an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Badalab-eko webgunean.

Oinarri arautzaileetan ezartzen denez, laguntza hauek norgehiagoka jardunbidez eman dira, eta Badalab-en Idazkaritzaren eginkizuna izan da dirulaguntzak emateko prozeduraren instrukzioa. Era berean, kontuan hartuta laguntzak jaso ahal izateko baldintzak eta betebeharrak, baita horiek baloratzeko ezarritako irizpideak ere, 6. oinarrian aurreikusitako Hautaketa Batzorde Mistoak deialdiaren esleipen proposamena prestatu du, eta Batzorde Betearazleari helarazi dio.

Izan ere, 8. oinarri arautzailean ezarritakoarekin bat etorriz, Batzorde Betearazle honi dagokio deialdia erabakitzeko eskumena. Bestalde, oinarri horretan bertan ezartzen da deialdiaren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaiela interesdunei eta, gainera, Badalab-en webgunean ere argitaratuko dela.

Horrenbestez, Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Batzorde Betearazleak, presidenteak hala proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

EBATZI DU

Lehenengo.- Ematea jarraian adierazten diren bekak, gizarte digitalari dagokion lan ildoaren baitan, "Adimen Artifiziala auzitan. Ideia sustapen deialdia" 2023. urteko deialdiari dagozkionak. Horretarako, zerrendan azaltzen diren onuradunen alde 6.000 euro xedatuko dira, zehazten diren zenbateko partzialengatik eta aurrekontuko kontu-sail honen kargura:

Onuraduna	Proiektua	Puntuak	Emandako beka	Kontu-saila
Jokin Pedreño Alcolea	Matx euskarari	82,25	1.500€	1 480.02.04 2023
Jone Goirigolzarri Garaizar	Penglos	78	1.500€	1 480.02.04 2023
Tinc Koop. Elk. Txikia	GuEuskara-Guztion euskara	68,25	1.500€	1 480.02.04 2023
Asociación Estudiantil Junior ATLAS	EUSKARA	64,5	1.500€	1 480.02.04 2023



Bigarren.- Jarraian azaltzen den ordezkoen zerrenda osatzea, aurreko taulan jasotako onuradunen batek uko edo atzera egingo balu, dagokion ordenan osatzeko hutsune hori:

Eskatzailea	Proiektua	Puntuak
Jon Sánchez Carrasco	Antzerk.I.A.	63
Iñaki Lopez de Luzuriaga Martinez	Grafoak Euskal Herriaren historia ardazten	49,7
Gari Morgado Macho	R. Trebitschen "Basque Recordins 1913" laneko grabaketen zaharberritzea AA erabiliz	46

Ebazpen hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuak ebazpen honen aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, argitalpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesatu partikularrek aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko Batzorde Betearazle honi, argitalpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeoaren berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Donostia, 2023ko urriaren 6a.- Iker Necedal Bustamante, Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren idazkaria.